

**KONTROL EKONOMIKOKO BULEGOAREN TXOSTENA, EUSKAL AUTONOMIA
ERKIDEGOKO JARDUERA FISIKOAREN ETA KIROLAREN LEGEAREN
AURREPROIEKTUARI BURUZKOA.*****Tramitagune -DNCG_LEY_2207/2019_10***

Urriaren 19ko 2/2017 Legegintzako Dekretuak, zeinak Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen testu bategina onesten baitu, III. tituluko IV. kapituluaren arautzen du Kontrol Ekonomiko Normatiboa. Kontrol hori nahitaezkoa da, eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoak dagokion kontrol-txostena bidaltzean gauzatzen da.

Ekonomiaren eta antolaketaren alderdietatik, kontrol horren barnean sartzen da Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoaren organoak fiskalizatzea, bai organo horiek sortzeko eta ezabatzeke prozesuetan, bai, halaber, organo horiek aldatzeko eta berregituratzeko prozesuetan.

Honako txosten hau egin da, xedapen hauek kontuan hartuta: aipatu den araua, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoaren barneko ekonomiaren kontrola eta kontabilitatea garatzen dituen urriaren 31ko 464/1995 Dekretuaren III. kapituluaren 3. atala, eta Ogasun eta Ekonomia Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko ekainaren 13ko 168/2017 Dekretuaren 4.a) artikulua.

TXOSTENA**I. XEDEA.**

Txosten honen xedea da goiburuan ageri den epigrafekeko proiektuko arauen kontrol ekonomikoa egitea. Proiektu horren helburua, bertan hitzez hitz jasotzen denez, Euskal Autonomia Erkidegoan jarduera fisikoa eta kirola arautzea nahiz sustatzea da. Euskal Autonomia Erkidegoan kirol-jarduera antolatzeko lege-mailako hirugarren araua izango litzateke. Hauek dira aurreko biak: 5/1988 Legea, otsailaren 19koa, Soin Kulturarena eta Kirolarena, eta 14/1998 Legea, ekainaren 11koa, egun indarrean dagoena, Kirolarena.

Aurreproiektuaren zioen azalpenak dioenez, bi hamarkada igaro dira 14/1998 Legea indarrean sartu zenetik, eta beharrezkoa da indarrean dagoen esparru juridikoa berrikustea, kirol-jarduerak denbora-tarte horretan izan dituen aldaketei erantzun egokia emateko. Horregatik, hitzaurrearen arabera, txostenaren xede den proiektuan *protagonismo berezia dute jarduera fisikoaren eta kirolaren sustapenak,*

kirol inklusiboagoa lortzeko helburuak, gobernantza oneko ereduak txertatzeak, desberdintasunen desagerrarazteak, emakumeen kirolaren sustapenak, kirol-erakundeetan organo paritarioak osatzeko betebeharrak, administrazio publikoek obesitateari eta egoneko bizitzari aurre egiteko lanean betetzen duten zeregina argitzeak eta kirol federatuaren egiturak berrantolatu eta arrazionalizatzeak.

Orain izapidetzen ari den aurreproiektua "LEGEGINTZAKO PROIEKTUEI" dagokien zerrendan ageri da, eta hura abiarazteko ahalmena Kultura eta Hizkuntza Politika Sailari dagokio. Gobernu Kontseiluak 2020ko azaroaren 10eko Erabakiaren bidez onartutako XII. Legegintzaldiko (2020-2024) legegintza-egutegiaren barruan dago, eta 2022ko lehen seihilekoan dago aurreikusita legea egitea.

Aipatutako erabaki horretako II. eranskinean *-Fitxa informatiboen dokumentua-* honako hau jasotzen da:

33. Euskadiko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Legea

a.- Izena: EUSKADIKO JARDUERA FISIKOAREN ETA KIROLAREN LEGEA.

b.- Erregulazioaren xede nagusia:

Euskal Herriko Autonomia Estatutuko 10.36 artikulua arabera, Euskal Autonomia Erkidegoak kirolaren arloko eskumen eskusiboa du. Eskumen hori gauzatzeko, Kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legea onetsi zuen Eusko Legebiltzarrak.

2018an 20 urte bete ziren legea onetsi zenetik, eta, orduetik, asko aldatu da gure gizartean kirola egiteko ikuskera.

Aurreko legegintzaldian, gogoeta sakona egin dugu sektoreko agenteekin; alde batetik, legearen egungo alderdiei buruz, bai funtzionatu duten puntuen gainean bai garapenik izan ez duten artikuluen gainean. Beste alde batetik, gogoeta egin dugu gure gizartean hurrengo 20 urteetan egin nahi dugun jarduera fisikoaz eta kirolaz, gure asmoa baita garaiekin bat datorren, eta egungo itxaropenak eta beharrak jasoko dituen legea egitea.

c.- Beste helburu osagarri batzuk:

d.- Eraginpeko gizarte-sektoreak:

- Kirol-federazioak*
- Kirol-klubak eta -elkartek*
- Kirolariak*
- Zerbitzuen eta kirol-ekipamenduen enpresa kudeatzaileak*
- Turismo aktiboko enpresak*
- Kirolari buruzko gaiak irakasten dituzten unibertsitate eta lanbide-heziketako zentroak*

- *Kirol-enpresak*
- *Foru-aldundiak*
- *Udalak eta Eudel*

e.- Lege-proiektua gutxi gorabehera noiz bidaliko den Gobernu Kontseilura, onar dezan:

- *2022ko lehen seihilekoa.*

Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko 2021eko Aurrekontu Orokorrak onesten dituen otsailaren 11ko 1/2021 Legean (otsailaren 17ko EHAA, 35. zk.), 4512 aurrekontu-programari (*Kirolak*) dagokion helburuen aurrekontu-memoriak aipamen labur bat egiten du, eta honako hau dio, hain zuzen: kirol-ereduari buruzko hausnarketa sustatzeko helburua betetzeko, *izapidetzen ari den Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Legearen aurreproiektuari gehitu nahi zaio etorkizunean nahi dugun jarduera fisikoaren eta kirolaren eredia, eta izapideak egiten jarraitu.*

II. ANALISIA.

Bidalitako agiriak aztertu ondoren, uste dugu bat datozela urriaren 31ko 464/1995 Dekretuaren 42. artikuluan ezarritakoarekin (Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoaren barneko ekonomiaren kontrola eta kontabilitatea garatzen ditu aipatu dekretuak), eta agiri horiek informazio nahikoa biltzen dutela bulego honek ekonomia-kontrola egin dezan, urriaren 19ko 2/2017 Legegintzako Dekretuaren (Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen testu bategina onesten du) 25., 26. eta 27. artikuluen arabera.

A) Prozedura eta izapidetzea

Espedienteko dokumentuek adierazten dute aurreproiektua gauzatzeko prozeduran bete direla, orain arte, abenduaren 22ko 8/2003 Legearen bidez jarritako baldintzak xedapen orokorrak egiteko. Hala ere, bi kontu argitu behar ditugu.

Alde batetik, zuzenbide positibo aplikagarriarik ez dakarrenean ere, kongruentzia-parametro gisa kontuan hartu behar da honako hau: Gobernu Kontseiluak 2020ko abenduaren 29ko bilkuran onetsitako Euskal Sektore Publikoaren Legearen proiektuak (organo horren menpe egongo da hemen aztergai dugun aurreproiektua ere) 44.1 artikuluan dioenez, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorraz besteko erakundeak osatzea helburu duten xedapenen kasuan, batera izapidetu beharko dira erakundea atxikiko zaion administrazio orokorreko sailaren eta ogasunaren arloko sail eskudunaren artean.

Bestalde, Gobernu Kontseiluaren 2010eko abenduaren 28ko Erabakiak, xedapen orokorrak izapidetzeko jarraibideak onesten dituenak, adierazten du,

besteak beste, abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 10. artikuluan aurreikusten den memoria laburrak berariaz adierazi behar dituela arau-proiektuak administrazio-kargen alorrean izango dituen inpaktu edo eraginak, emango den arauak ez dezan behar ez den kargarik erantsi. Ildo horretatik, egiaztatu da bulego honi dagokion kontrol-izapideak gauzatzeko unean, espedientean ez dela gai honi buruzko informaziorik agertzen, eta, ondorioz, nahitaez aipatu beharko da Gobernu Kontseiluari bidaltzen zaion espedienteari erantsiko zaion memoria laburrean.

Gogorarazi behar da, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 10.2 artikuluan adierazitakoaren arabera, Jaurlaritzaren Kontseiluak aztertu eta erabakitzeke igorri aurretik, espedienteari prozedura osoaren memoria labur bat erantsi beharko zaiola, eta, bertan, honako hauek guztiak zehaztuko dira: aurrekariak, egindako izapideak, izapideen emaitzak eta, egindako txostenen ohar eta iradokizunei egokitzearen, batez ere txostenetan egindakoei, proiektuaren testuan sartutako aldaketak; behar besteko zehaztasunez arrazoituko da zergatik ez diren onartu txosten horietan egindako oharrak, eta zehatz-mehatz arrazoituko da, orobat, azkenean erabakitako testua zergatik den antolamendu juridikoaren arabera (abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 10.2 artikulua). Gogorarazi behar da, halaber, espedienteak hori aplikatzeak beste administrazio publiko batzuei, partikularrei eta ekonomia orokorrari ekar dakiekeen kostua ebaluatzen duen memoria bat barne hartu beharko duela (abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 10.3 artikulua). Aurrerago helduko diogu azken alderdi horri.

B) Testua eta edukia

Aurkeztutako testuari dagokionez, ohar batzuk egin behar ditugu:

1.- Eskumenen gaia.

Eskumen-eremuari buruzko bi konturi erreparatu behar diegu, EAEko aurrekontu orokorretan izan dezaketen eragin ekonomikoagatik, eta, jakina, kalterik egin gabe Aholku Batzorde Juridikoak horri buruz ebatzi dezakeenari.

Lehenengo gaia **udalerrien eskumenekin** lotuta dago. Kendu egin da 5 a) artikulutik 14/1998 Legearen dagokion xedapenak eskola-kirolari egiten dion aipamena: *"lurralde historikoetako foru-organoek onartutako (eskola-kiroleko) programak burutzea, haiekin koordinatuta jokatzuz"*. Aipamen hori ezabatzean, desagertu egin da eskola-kirolari buruzko berariazko aipamena toki-erakundeei dagozkien eskumenen zerrendatik, eta hori ez dator bat ez aurreproiektuaren 4 a) artikuluan xedatutakoarekin, ez eta 76.3 artikuluan ezarritakoarekin ere. Espedientean horri buruz dauden gogoetak kontuan izanda, ez dirudi aipamen hori nahita kendu denik; beraz, eskola-kirola berariaz aipatzea gomendatzen dugu, indarrean dagoen legean jasota dagoen bezala, koherentzia eta ziurtasuna emateko udal-eskumenen eremuari.

Udal-eskumenen gaiaren harira, espedientean jasota dago, lehenik, Eudelen esku-hartzea, ondoren Euskadiko Tokiko Gobernuen Batzordearena, eta, azkenik, aldebiko batzorde batena (Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak eta Euskadiko Tokiko Gobernuen Batzordeak osatzen dute). Esku-hartze horietatik ondorioztatzen da ez dagoela adostasunik toki-erakundeetako ordezkarien eta aurreproiektuaren sustatzaileen artean, lege-testuari finantzaketa-eranskin bat gehitzeko beharrari buruz (Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen —ETEL— 18.3 artikulua aipatzen du eranskin hori).

Aipatutako batzordeek hainbat bilera egin ondoren, badirudi bi alderdiak ados jarri direla kontu batean: aurreproiektuak ez die eskumen berririk esleitzen toki-erakundeei. Hala ere, ez dute iritzi bera lege-testuari ETELen 18.3 artikulua aipatzen duen finantzaketa-eranskina gehitzeko beharrari buruz. Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzaren ordezkariaren ustez, finantzaketa-eranskin hori ez da beharrezkoa, ez baitaie eskumen *berririk* esleitzen udalerri; aitzitik, 14/1998 Legean esleituta daudenak mantentzen dira (sektore-arau hori zegoen indarrean ETEL indarrean jarri aurretik). Udal-ordezkaritzak, dagozkion aktetan jasota dauden arrazoiengatik, dio eranskin hori beharrezkoa dela arauan eskumen-esleipena dagoen guztietan, nahiz eta esleitutako eskumenak berriak ez izan.

Desadostasun hori konpontzeko argigarriak izan daitezke *"Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde-maila desberdinen eskumen propioen eta finantzaketaren azterketa orokorra"* izeneko dokumentuan jasotako kontsiderazioak. Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak egin zuen dokumentu hori, ETELen lehen xedapen iragankorrean jasotako agindua betez, 2018ko ekainean. Aipatutako dokumentuak honako hau dio berariaz: *"Hasiera puntu gisa, udalen eskumen propioak, 17.1 artikuluan dauden gaien sektoreko araudiak aitortzen dituenak, dagokien finantzaketa dute, txosten honen helburua den ETELen Lehen Xedapen Iragankorreko hirugarren apartatuan xedatzen den analisitik eratorritako aldaketak kontuan izanda"*. Txosten horren ondorioetan, euskararen erabilera sustatzeko finantzaketa eta gizarte-zerbitzuei dagokiena berriz aztertzea bakarrik proposatzen da; beraz, hau ondoriozta daiteke: Kirolari buruzko 14/1998 Legean jada esleitutako kirol-arloko udal-eskumenak —hau da, ETEL indarrean sartu aurretik indarrean zegoen sektore-arauak aitortutakoak— behar bezala finantzatuta daudela, eta, ondorioz, ez dela beharrezkoa lege-testuari finantzaketa-eranskinik gehitzea.

Eskumenen arloan aipatu beharreko bigarren gaia testuaren 4. artikuluekin lotuta dago. Lurralde historikoetako foru-organoen eskumenak ezartzen ditu artikulua horrek. Artikulu horri aldaketa bakarra egin zaio indarrean dagoen 14/1998 Legearen 4. artikuluan ezarritako eskumen-zerrendari dagokionez: b) letran jasotako eskumenari erreferentzia hauek gehitu zaizkio (letra etzanez ageri dira):

b) *Jarduera fisikoa* eta pertsona guztientzako kirola sustatzeko kirol-politika onartzea eta *erakunde komunekin* eta udal-administrazioarekin koordinatuta gauzatzea.

Horrek esan nahi du beharrezkoa dela “pertsona guztientzako kirola” erakunde komunekin ere koordinatzea —lehenengo aldiz—, eta ez direla gauza bera “jarduera fisikoa” eta “pertsona guztientzako kirola”, aurreproiektuaren hitzetan.

Eta aldaketa horri helduta, itxuraz, 18. artikulua manu berri bat jasotzen du, zeinak hau baitio hitzez hitz:

“Osasunaren arloko neurriak.

*1.- Osasunaren eta kirolaren arloan eskumenak dituzten Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailek **jarduera fisikoa bideratzeko zerbitzuen** sorkuntza sustatuko dute elkarrekin, lehen mailako arretako zerbitzuek osasun-arrazoien ondorioz ez-aktiboak diren edo premia bereziak dituzten pertsona gisa identifikatzen dituzten pazienteentzat.*

*2.- Sail horiek **osasuna jarduera fisikoaren bidez sustatzeko baterako neurriak hartuko dituzte**. Horretarako, jarduera fisikoaren jardunaren onurei eta kontuan hartu beharreko neurriei buruzko informazioa eta gomendio espezifikak zabalduko dituzte, eta patologia jakin batzuen prebentziora eta tratamendura bideratutako programen bidez sustatuko dute jardun hori”.*

Aurreikuspen horri dagokionez, hona hemen, hitzez hitz, 2019ko uztailaren 24ko txostenean esan genuena, udalek jarduera fisikoko zerbitzuak sortu eta garatzeko Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak 2019an emandako dirulaguntzen deialdiaren harira (sail horrek du kirol-arloko eskumena; 2020rako deialdiak bulego honen aurrak txosten etengarria jaso zuen, eta, beraz, ez zen argitaratu):

“Bulego honen iritziz, eta hargatik eragotzi gabe gaiari buruz ezagutza handiagoa duten beste instantzia batzuek —bereziki, auziari buruzko txostenak egiteko eskumena dutenek— besterik ebaztea, administrazio honek ez du eskumenik proiektatutako sustapen-programa gauzatzeko. Gai honen azterketa, argi eta garbi, ekonomiaren eta arauen kontrolari buruzko txostenaren zereginetik harago doa (Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen Testu Bateginaren 25.etik 27.era bitarteko artikuluetan aurreikusitakoaren arabera). Hala ere, gaiari buruzko berariazko azterketarik ez dagoenez, hurbilketa bat egin beharra daukagu, hartara eragotzi gabe ahalmen handiagoa duten pertsonen horri buruz erabaki dezaketena.

Eskematikoki, gogoeta hauek egin ditugu aztertutako proiektua kokatzen den eskumen-eremuaren inguruan:

1.- Lehenik eta behin, ez dugu argi ikusten, ezta horri buruzko espedientean ere, sustatu nahi den jarduera ez denik lehentasunez sartzen osasunaren eremuan; izan ere, jarduera fisikoa pertsona sedentarioen artean bultzatzearen xedea da bizi-ohitura osasungarriak sustatzea, eta, azken batean, ohitura horien bidez ariketa fisikorik egiten ez zuten pertsonen osasuna hobetzea. Eskumenei dagokienez, kirol-arloaz gain "osasunaren" esparrua ere dago tartean; beraz, lehenik eta behin, aztertu eta erabaki beharko litzateke bietatik zein gailentzen den.

2.- Kirol-arloko eskumena gailentzen dela ondorioztatuz gero, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea (aurrerantzean, TAOL) hartu behar dugu kontuan, kirol-arloan udalei esleitutako eskumenak zehazten baititu. Izan ere, udalak dira dirulaguntzaren zuzeneko onuradunak, eta, eskumen hori beraiek dutela ondorioztatzen bada, ez litzateke bidezkoa izango administrazio honek udalak dirulaguntza bidez finantzatzea; jarraian azaltzen ditugu arrazoiak.

Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen Legeak zehazten du udalek zein gaitan egikaritu behar dituzten eskumenak (25. artikuluan jasotakoak), eta horien artean dago "kirola eta kirol-instalazioak eta aisialdia betetzekoak sustatzea" —j) letra—. Hala ere, artikulua horrek dioenez, lege sektorialak zehaztuko du kasuan kasuko berezko udal-eskumena (Estatuko edo autonomia-erkidegoetako legeria, berezko eskumenen arabera), eta bermatuko da eskumen bera ez zaiola aldi berean beste administrazio publiko bati esleitzen.

EAEn eremuan, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legea (aurrerantzean, ETEL) ildo beretik doa, eta udalerrien eskumen propioak zerrendatzen ditu (17. artikulua). Zerrenda luze horretan, hemen aztertzen ari garen gaiari dagokionez, 17.1.19 artikulua dio udalerriek beren eskumenak erabili ahal izango dituztela esparru material honetan: "kirola eta kirol-jarduerak antolatzea eta sustatzea, eta erabilera publikoko kirol-ekipamenduak kudeatzea" (esparru material hori bat dator TAOLen 25.2.j artikuluan jasotakoarekin).

3.- Aplikatzekoa den araudi sektorialari jarraituz (14/1998 Legea, ekainaren 11koa, Euskadiko Kirolarena), eta kirol-arloak barne hartzen dituen alderdi guztiak kontuan izanik, gure iritziz, "guztiontzako kirola" deiturikoaren barruan kokatzen da txostenaren xede den jarduera. "Kirolak" esparru material zabaleko sektore bat da "guztiontzako kirola", zeinak herritar guztiek jarduera fisikoa edo kirola egitea sustatzen baitu, bizimodu osasungarriaren bidez herritarren bizi-kalitatea hobetze aldera.

4.- Euskadiko kirolaren 14/1998 Legearen II. tituluak ezartzen duen administrazio-antolamenduak foru-aldundiei eta udalei [5 b) eta 6 e) artikulua] esleitzen dizkie "guztiontzako kirolari" buruzko eskumenak, baina erreferentzia hori ez da aipatu ere egiten 4. artikulua erakunde erkideei eta, beraz, administrazio honi esleitzen dizkien eskumenen zerrenda luzean.

[...]

7.- Ez dago argi foru-finantzaketa bidezkoa izango litzatekeen ala ez (Legeak "guztionezako kirolaren" arloko eskumenak esleitzen baitizkie foru-aldundiei eta udalerriei); edonola ere, argi dagoena da ez dagokiola finantzaketa autonomikorik (kirol-eremuan behintzat), ez baita haren eskumeneko gaia.

Horregatik guztiagatik, uste dugunez administrazio honek ez duela eskumenik aztertutako deialdiari ekiteko, proiektatutako aginduaren **AURKAKO TXOSTENA** egin beharra daukagu. Nolanahi ere, txosten juridiko espezifikoko batek auzia sakonki aztertu (hertsiki juridikoa baita gaia) eta kontrakoa ebazten badu, jakina, haren oinarriak eta ondorioak hartuko ditugu kontuan".

Foru-aldundiek pertsona guztientzako kirola sustatzera bideratutako kirol-politika (jarduera fisikoa sustatzea barne hartzen duela ulertuta) erakunde erkideekin koordinatu behar izateak, alde batetik, eta, bestetik, eskumena esleitzeak kirol-arloko aginpidea duen EAEko Administrazio Orokorreko sailari eta Osasun Sailari (18.1 artikulua), *jarduera fisikoaren arloko orientazio-zerbitzuak* sor daitezen sustatzeko, gure iritziz, EAEko lurralde-administrazioen eskumen-zerrenda aldatzea dakar berekin; hau da, erakunde erkideen eskumenak zabaltzea, orain arte beren eskumenekoak ez ziren gaiak hartuko bailituzkete beren gain. Horregatik, uste dugu beharrezkoa dela aldaketa hori berariaz eta zehatz-mehatz arrazoitzea, baina espedientean ez dago horrelako azalpenik.

Aitzitik, aurreproiektuaren azalpen-memoriak berak, aldaketa horien arrazoirik ez emateaz gain, berariaz adierazten du orain arte indarrean egon den eskumen-banaketari eutsiko zaiola EAEko lurralde-administrazioen artean. Bestalde, aipatutako memoriak, "kirola" osatzen duten alderdien barruan "jarduera fisikoa" izenekoak (legearen arreta-gune berriak) zer leku hartzen duen azaltzean, argi eta garbi kokatzen du aurreko arau-esparruak erabilitako kontzeptuaren barruan, alegia, "guztionezako kirola" izenekoaren barruan (testu berrian, "pertsona guztientzat" esamoldea erabiltzen da). Hona zer dioten memoriaren 67. atalak gaiari buruz: *"Zentzuzkoa iruditzen zaigu Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Lege berriak erakunde-maila desberdinei esleitzea gaur egun "guztionezako kirola" izenekoaren harira jarduera fisikoa sustatzeko ematen diren eskumen berberak, nahiz eta kontzeptu edo errealitate horiek hertsiki sinonimoak ez izan"*.

Horregatik, proposatzen duguna da 14/1998 Legeko 4 b) artikulua idazkerara itzultzea eta 18. artikulua ezabatzea; edo, bestela, jarduketak hori lotzea jarduera fisikoa (funtsean, "pertsona guztientzako kirola" dela ulertuta) sustatzera bideratutako jarduketak gauzatzeko eskumena duten organoekin. Izan ere, betearazteko eskumen hori EAEko Administrazio Orokorreari esleitzeak berekin ekarriko luke, bistan denez, EAEko Administrazioaren gastua handitzea; orain arte, lurralde historikoetako edo toki-erakundeetako organoek finantzatu baitute gastu hori. Memoria ekonomikoak ere ez du aldaketa hori aipatzen; eta, ondorioz, ez du balioespenik egiten eskumen-esleipen berri horrek sorraraziko lituzkeen kostuei

buruz, EAEko erakundeetako baliabideen banaketa erabakitzen duten instantziek kontuan har dezaten.

2.- Dirulaguntzen araubideari buruzko gaiak.

Aztertzeko modukoak iruditu zaizkigu dirulaguntzen araubideari buruz testuan egiten diren aurreikuspen hauek:

- 20.2 artikulua: *Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoek, beren eskumenen esparruan, jarduera fisikoan eta kirolean **governantza oneko gutxieneko estandar** batzuk **betetzearen baldintzapean** jarriko dute jarduera fisikoaren eta kirolaren finantzaketa publikoa eta kirol-ekitaldietarako hautagaitzen babesa.*
- 23.3 artikulua: *Administrazio publikoen laguntza-deialdietan, berdintasunaren eta ekitatearen printzipioen erabateko errespetua **baloratuko** da, bai eta **sentsibilizazio**-politiken integrazioa ere **sexu-orientazioaren eta genero-nortasunaren aniztasunari** dagokionez, erakunde eskatzaileen antolamenduan eta funtzionamenduan.*
- 43.2 artikulua: ***Kode** hori (**governantza onarena**) onartzea eta betetzea kontuan hartu beharreko **irizpidea** izango da kirol-arloan eskumena duen Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko Sailak kirol-federazioei ematen dizkien laguntza publikoetan.*
- 44.4 artikulua: *Kirol-federazioek **hizkuntza-normalizazioko planak** landu, onartu eta gauzatu beharko dituzte, federazioaren barne-jardueratan nahiz herritarrei zuzendutako jardueratan euskararen erabilera normala pixkanaka bermatzeko. Betebehar hori bete ezean, dirulaguntzak jasotzeko **gaitasuna galduko** dute.*
- 112.3.e) artikulua: ***Indarkeriari, xenofobiari** eta ezaugarri edo zirkunstantzia pertsonalak, sozialak eta generoari edo sexu-identitateari lotutakoak direla eta sortutako beste **edozein diskriminazio motari aurre egiteko** kanpainen eta neurrien ezarpena eta garapena kirol-erakundeei laguntza ekonomikoak emateko **irizpide** gisa kontuan hartzea.*

Kontuan izan behar da legezko betebeharra dela (aurreproiektuaren 39.2 artikulua) kirol-federazioei beharrezko finantzaketa eta baliabideak ematea, eskuordetutako funtzio publikoak eta legean bertan ezarritako betebeharrak behar bezala betetzen direla bermatzeko. Finantzaketa hori dirulaguntzen bidez gauzatzen da. Horregatik, tentu handiz ibili behar da federazioei dirulaguntzarik ez ukatzeko arauak berak ezarritako betebehar jakin batzuk ez betetzeagatik; batez ere, aipatutako kirol-erakundeei esleitutako funtsezko eginkizunarekin zuzeneko loturarik ez duten gaitan, hala nola hizkuntza-normalizazioko planetan. Euskararen erabilera

bultzatzeko eginkizunak badu bere arau sektorial propioa, eta arau horrek zehazten du zer tresna eta neurri hartu behar diren euskara sustatu, garatu eta babesteko; hala, betebeharrak eta obligazioak ezartzen ditu berdintasun- eta proportzionaltasun-baldintzetan, jarduera-eremu guztietan.

Alde horretatik, zentzuzkoa izan liteke federazioei eskatzea euskara erabil dezatela eskuordetutako funtzio publikoak betetzeko (aurrekontu publikoen bidez finantzatzeko baitira); hala ere, ez dirudi neurrikoa denik, edo aztergai dugun arauak babestutako ondasun juridikoarekin koherentea, federazioei guztiz ukatzea finantzaketa publikoa eskuratzeko aukera ez badute aldian behin hizkuntza-normalizazioko planik egiten, onartzen eta gauzatzen.

Ondorio bera atera dezakegu 20.2 artikuluan xedatutakoa irakurriz gero; izan ere, artikulua horren arabera (nahiz eta 44.4 artikulua bezain argia ez izan), badirudi *jarduera fisikoan eta kirolean gobernantza onaren gutxieneko estandarrak* betetzen ez dituzten erakundeek ezin dutela laguntzarik edo dirulaguntzarik jaso. Alabaina, arau-testuak ez du inolako azalpenik ematen gutxieneko estandar horien edukiari buruz, eta ez du esaten zein den estandar horiek zehazteko organo eskuduna.

Bestalde, ez zaigu gomendagarria iruditzen lege-mailaz atxikitzea dirulaguntzak emateko balorazio-irizpide jakin batzuk aplikatzeko betebeharra; izan ere, beste lege-testu batzuetan antzeko aurreikuspenak egin direnean emaitzak desagokiak izan dira, gauzatzeko zailak zirelako edo ez zelako komeni haiek gauzatzea. Horrek, batzuetan, dagokion lege-agindua behin eta berriz urratzea eragiten du.

Horregatik guztiagatik, gure ustez, eta dagokion sektore-arauak babestu beharreko ondasun juridikoari zuzenean lotutako funtsezko alderdiak salbuetsita, hobe da dirulaguntzak arautzen dituen araudiaren eta dirulaguntza-programen oinarri arautzaileen esku uztea laguntzak emateko kontuan hartu behar diren balorazio-irizpideen zehaztapena (alegia, zein diren laguntza eta dirulaguntza publikoak eskuratu ahal izateko bete beharreko ezinbesteko baldintzak), bai eta, hala badagokio, laguntzen zenbatekoaren kuantifikazioa ere.

Bestalde, dirulaguntzekin lotuta, 49. artikulua onura publikokotzat jotzen ditu kirol-federazioak, eta adierazten du aitortzen horrek, besteak beste, honako abantaila hau dakarrela: *"lehentasuna ematea kirol-ekipamenduen arloko laguntzak eta dirulaguntza-programak eskuratzeko"*. Zazpigarren xedapen gehigarriak onura publikokotzat jotako kirol-klubei ere ematen die abantaila bera.

Azaldutakoa ez da aurreproiektuaren testuaren berritasun bat, hala jasota baitago indarrean dagoen legean ere; baina gure ustez aurreikuspen anbigua da, ez baitu behar bezain argi azaltzen zertan datzan laguntzak eskuratzeko lehentasun hori: alegia, laguntzak jasotzeko orduan erabateko lehentasuna ote dakarren beste

eskatzaile batzuen aldean —nahiz eta beste horiek merezimendu gehiago izan laguntza publikoa jasotzeko—; finantzaketa-maila handiagoa ekarriko ote duen beste eskatzaile batzuen aldean, edo, azken batean, lehentasun horrek beste abantaila batzuk ekar litzakeen. Nolanahi ere, dagokion administrazioak bere plangintza estrategikoa aplikatuz erabakitzen dituen kirol-sustapeneko politika zehatzen aurkakoa izan daiteke ekipamenduetarako dirulaguntzak jasotzeko *lehentasuna* kirol-federazioei lege bidez bermatzea. Aurreikuspen horrek, gainera, urratu egin ditzake dirulaguntzen arloko oinarritzko manuak, hala nola konkurrentziaren, berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioak (Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 8.3 artikulua).

C). Antolaketa-eragina Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egituraren. Jarduera Fisikoaren Euskal Agentzia.

Proiektaturiko erregulazioak eragina du bai Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean, bai haren Administrazio Institutuzionalean, honako hauen ondorioz: (1) erakunde berri bat sortuko da zuzenbide pribatuko erakunde publiko gisa [Jarduera Fisikoaren Euskal Agentzia]; (2) administrazio publikoen aholkularitza-, kontsulta-, jarraipen- eta eztabaida-organo gorenara aldatuko da, gai horri dagokionez [orain, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Euskal Kontseilua da]; (3) kide anitzeko bi organo independente kenduko dira, eta azpibatzerde gisa sartuko dira (hala esaten zaie 6.4 artikuluan) Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Euskal Kontseiluan [Unibertsitate Kirolaren Euskal Azpibatzerdea, eta Jarduera fisikoan eta kirolean indarkeriari, arrazakeriari, xenofobiari eta intolerantziari aurre egiteko Azpibatzerdea]; (4) Kontseiluaren barruan erakunde arteko koordinazio-mahai bat eratuko da; (5) kide anitzeko organo independente bat desagertuko da [Sustapen Olinpikorako Euskal Batzerdea]; eta, azkenik, (6) kirolaren arloan eskumena duen sailari atxikitako zerbitzu bat kenduko da [Teknika Hobekuntzarako Zentroa].

Ez dugu eragozpenik edo ezer esatekorik Administrazio Orokorrari atxikitako kide anitzeko organoetan egin nahi diren aldaketa edo ezabatzei buruz, ez eta Teknika Hobekuntzarako Zentroa kentzeari buruz ere. Proposatutako aldaketa guztien egokitasuna, arrazoizkotasuna eta komenigarritasuna behar bezala argudiatuta eta justifikatuta dago espedientean, kirolaren arloko zeregin publikoa efizienteagoa eta efikazagoa izan dadin, eta guk ez dugu beste ezer esateko horri buruz. Beharbada, desiragarria izango zatekeen, ildo beretik, berariazko ebaluazioa egitea indarrean dagoen gainerako antolaketa-egituraren efikaziaren eta efizientziari buruz, egitura horri eustea egokia dela ziurtatzeko.

Edonola ere, aztertu beharreko gaia da Jarduera Fisikoaren Euskal Agentziaren sorrera, eragin handia izango baitu EAEko administrazio publikoaren antolamendu instituzionalean eta, ondorioz, EAEko Aurrekontu Orokorreran.

Proiektuaren asmoa da Jarduera Fisikoaren Euskal Agentzia izeneko erakundea sortzea: zuzenbide pribatuko erakunde publiko bat (ZPEP), zeinak bere eginkizunak betetzeko nortasun juridiko propioa eta jarduteko gaitasun osoa izango baititu; kirol-arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailari atxikita egongo da, eta, beraz, horrek EAEko administrazio instituzionalaren eremua zabalduko du, erakunde berri bat ghituz.

Proiektuak etorkizuneko erakunde hori Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina (EONALTB) onesten duen 1/1997 Legegintzako Dekretuan deskribatutako ZPEP gisa sailkatzen du (15. artikulutik 18.era), alegia, helburu gisa beren eskumenari dagozkion jarduerak gauzatzea (deszentralizazio bidez) duten eta zuzenbide pribatuari jarraitzen dioten Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde publikoak bezalako erakunde gisa.

Aurreproiektuaren azalpen-memoriak zehatz-mehatz azaltzen ditu arau-testuak hobetsitako gainerako aukerak justifikatzen dituzten arrazoiak; hala ere, ez du argudio bakar bat ere ematen edo hausnarketarik egiten entitate hori zuzenbide pribatuko erakunde publiko gisa sortzea justifikatzeko.

Legearen aurreproiektuaren hitzaurrean, honako arrazoi hauek ematen dira erakundea sortzearen alde: *"Euskal gizarte aktiboagoa lortzea da legearen helburu nagusietako bat, eta horretarako behar den ezinbesteko tresna juridikoa sortuko da, alegia, Jarduera Fisikoaren Euskal Agentzia, egungo aukera organikoak ez baitira nahikoak. Izan ere, alde batetik, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Euskal Kontseilua aholkularitza-, kontsulta-, jarraipen- eta eztabaida-organoa da, nortasun juridikorik gabea, eta, beraz, ez du ahalmen betearazlerik edo kudeaketa-gaitasunik. Eta, bestetik, ezinbestekoa da erakundearen erabakiak hartzerakoan Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko hainbat sektore-arlotako ordezkariak parte hartzea; horrek eragotzi egiten du jarduera fisikoaren sustapena sail bati atxikitako zuzendaritza bakar baten mende egotea".*

Gure ustez, hitzaurrean ZPEPri buruz esaten dena ez dago behar bezain arrazoituta; hau da, ZPEP bat *euskal gizarte aktiboagoa* lortzeko ezinbesteko tresna juridikoa delako adierazpen hori. Izan ere, ez da justifikatzen jarduera fisikoa sustatzeko zergatik behar den zuzenbide pribatuaren bidez arautu beharreko pertsonifikazio juridiko bat. Aurreproiektuaren 7. artikulua ZPEPri esleitzen dizkion eginkizunen zerrenda aztertuta, ezin da ondorioztatu horietako bat ere egon behar denik zuzenbide pribatuaren mende. Aitzitik, eginkizun guztiek ohiko esku-hartze administratiboaren modalitateari egiten diote erreferentzia, hau da, sustapen-jarduerari: partikularren ekintza interes orokorreko helburuetara bideratzen da, hainbat pizgarri emanez.

Hasteko, lurralde-administrazioen arteko eskumen-banaketa kontuan izanik, ez da egiaztatu (lehen esan dugun bezala) erakunde erkideek zuzenean eragin behar

dutenik (kirolen arloan behintzat) jarduera fisikoa sustatzeko politiken betearazpenean, jarduera fisikoak "pertsona guztientzako kirola" esan nahi duela ulertuta. Gainera, espedientean ere ez dugu aurkitzen argudiorik justifikatzeko zergatik ezin dituen gauzatu EAEko Administrazio Orokorrek, kirolen arloko kide bakarreko eta kide anitzeko organoen bidez, agentziaren esku utzi nahi diren eginkizunak, ez eta hala ez jokatzeko arrazoirik ere. Ez da azaltzen zer gabezia antzeman diren orain arte jarduera fisikoaren sustapenean, eta ezta ere, hala badagokio, zergatik ahalbidetuko duen entitate berri baten sorrerak arlo hori modu efikazago eta efizienteagoan kudeatzea.

Gorago esan dugunez, Gobernu Kontseiluak onartu berri du Euskal Sektore Publikoari buruzko lege-proiektua; hain zuzen ere, aztergai dugun aurreproiektua onartu behar duen organo bera da, eta, hortaz, kongruentziagatik behintzat, aurreproiektu hori inspiratu beharko luke. Bada, lege-proiektuak honako manu hauek jasotzen ditu 6. artikuluan: euskal sektore publikoa sortzeari eta eraldatzeari aplikatzen dakizkiokeen printzipiotzat hartzen ditu Administrazioaren nortasun juridikoaren batasunaren lehentasuna eta subsidiariorotasuna; erakunde berriak sortzea aurreikusten du lehendik dauden baliabideekin interes orokorra ezin denean efikaziaz eta efizientziaz bete; eta, gainera, lehendik dauden baliabideak berrantolatzea eskatzen du¹. Espedientean ez da horrelakorik justifikatzen, ez eta bermatzen ere.

Espediente horretan, ordea, jasota daude zenbait irizpen, guztiak ere erakundea sortzearen kontrakoak; zehazki, ekimena sustatu duen sailaren beraren aholkularitza juridikoarena, Herriarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzarena, Funtzio Publikoko Zuzendaritzarena eta Bizkaiko Foru Aldundiarena. *Euskal Autonomia Erkidegoko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Legearen aurreproiektuari egindako alegazioen eta txostenen balorazioa* izeneko dokumentuak argudio hau baino ez du ematen kontrako irizpen horien aldean:

¹ **1.-Euskal Autonomia sektore publiko subjektuek printzipio berezi hauek bete beharko dituzte:**

a) **Administrazioaren nortasun juridikoaren batasunari lehentasuna** emateko printzipioa. Horren arabera, kasu honetan baino ez dira sortuko nortasun juridiko propioa duten erakundeak: Administrazio Orokorreko organo eta administrazio-zerbitzuen bidez ezin denean lortu bete beharreko interes orokorra edo eman beharreko zerbitzua.

b) **Subsidiariorotasun-printzipioa.** Horren arabera, zuzenbide pribatuaren mendeko erakundeak kasu honetan baino ez dira eratuko: ekimen pribatuak ez duenean behar bezala bermatzen zerbitzu edo prestazio jakin batera iristeko bidea edo ez dagoenean hori justifikatzen duen interes publikoko beste arrazoirik.

2.-Euskal administrazio publikoak eta euskal sektore publikoa osatzen duten erakundeek kasu hauetan baino ez dituzte sortuko erakundeak edo kasu hauetan baino ez dute parte hartuko lehendik dauden beste erakunde batzuetan: **interes orokorra ezin denean efikaziaz eta efizientziaz bete dagokion sektore publikoak une horretan dituen giza-baliabideekin, baliabide materialekin eta antolamendu-baliabideekin.**

3.- Baliabideak berrantolatu beharko dira, baldin eta erakundeak sortzean, erakunde horiei orain arte Administrazioako beste organo batzuek edo sektore publikoko erakundeek betetzen zituen funtzioak esleitzen bazaizkie; horrelakorik gertatuz gero, murriztu, kendu edo transferitu egingo dira dagozkion funtzioetan edo eskumenetan baliatzen ziren baliabideak.

4.- Sortzen diren erakundeek, bestalde, beren jarduerarako eta funtzioetarako egokiena den forma juridikoa hartuko dute, lege honetan erakunde bakoitzarentzat arautzen diren printzipioen arabera.

ezinezkoa da sail bati organikoki atxikitako zuzendaritza batek Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokor osoaren zeharkako politikak gauzatzea beste sail batzuk inplikatur.

Bulego honek behin baino gehiagotan gogorarazi duenez, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Testu Bateginak (EONALTB) aurreikusten du ZPEP bat sortzea, Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenekoak diren jarduerak egiteko deszentralizazio-araubidean, bere zereginetan zuzenbide pribatuari lehentasuna eman behar zaionean (EONALTBren 15. artikulua). Ez da zehazten zein diren erakundeak, bere eginkizunak betetzeko, zuzenbide pribatuaren arabera gauzatu beharreko jarduerak; eta, horrenbestez, ez da balioesten jarduera horiek erakundearentzat aurreikusitako guztizkoaren baitan hartuko luketen bolumen ekonomikoa.

Bestalde, EONALTBn EAEko administrazio instituzionalari buruz jasotako araudiak ez du aurreikusten eduki zehatzik erakundea sortzeko legearentzat (ZPEPak hala direla berariaz adierazi beharko dela baino ez du esaten); alabaina, eduki hori eratzeko balio dezake, kontuan hartu beharreko kongruentzia-parametro gisa, Euskal Sektore Publikoaren Legearen proiektuak, zeinak 44. artikuluan eta hurrengoetan zehazten baitu Administrazio Orokorraz bestelako erakundeak sortzeko prozedura²:

² 44. artikulua.- Erakundeak eratzeko prozedura orokorra.

1.- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraz besteko erakundeak eratzeko, Eusko Legebiltzarraren lege bat edo Eusko Jaurlaritzaren dekretu bat onartu beharko da, hurrengo artikuluetan erakunde-mota bakoitzerako ezartzen denaren arabera. Dekretu horrek, bestalde, **baterako izapidetzea** behar du, hau da, Administrazio Orokorrean **ogasun-gaien** eskumenak dituen sailak eta erakundearentzat aurreikusten den Administrazio Orokorreko atxikipen-sailak batera izapidetu beharko dute kasu bakoitzean.

2.- Lege-proiektua edo dekretu-proiektua **izapidetzeko prozeduran**, nahitaez **egiaztatu** beharko dira honako hauek:

a) **Beharrezkoa** dela beste erakunde bat eratzea lortu nahi diren helburu publikoak lortzeko.

b) Erakunde berri hori nola **egokitzen** den Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publiko osoaren antolamendu instituzionalaren ikuspegitik. Bermatu egin beharko da ez dela errepikatzen organorik edo funtziorik, eta, hala badagokio, zer neurri hartzen den lehendik dauden erakundeak berregituratu edo desegiteko.

c) Lege honetan pertsonifikazio juridikorako ezartzen diren tipologiaren artean aukeratu dena **egokia** dela erakunde berriak bete behar dituen funtzioetarako edo jarduerarako, eta bat datorrela lege honek forma bakoitzerako ezartzen ezartzen dituen printzipioekin.

d) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek zer prozedura eta teknika erabiliko dituen erakunde berria **kontrolatzeko**.

e) Erakunde berriaren **bideragarritasun ekonomiko eta finantzarioa**.

3.- Artikulu honetan aipatzen den edozein erakunde sortu eta eratu aurretik, hasierako **jarduketa-plan** bat egin behar da, eta gutxienez honako alderdi hauek jasoko ditu:

a) Erakundearen **xedeari** edo helburuari buruzko berariazko adierazpena, berariaz adierazita beste organismo publiko bat sortzea justifikatzen duten arrazoiak eta erakundearen **helburuak** —nahikoak eta egokiak direla justifikatuko da—, helburu horiek neurtzeko **adierazleak**, eta helburuok lortzeko **urte anitzeko programazio** estrategikoa. Horretarako, **zer bitarteko ekonomiko erabiliko diren eta zer langile** ere adierazi beharko da, eta, langileei dagokienez, zehaztu egin beharko da lanpostuak nola beteko diren, langileak nondik ekarriko diren, kostuak zenbatekoak diren, zein diren ordainsariak eta kalte-ordainak, eta

Eskakizun horiei dagokienez, honako gabezia hauek antzeman ditugu: orain arte, proiektua izapidetzeko prozeduran, ez da egiaztatu (1) beharrezkoa denik erakunde berri bat eratzea lortu nahi diren helburu publikoak betetzeko, eta ezta ere (2) erakunde berri hori nola egokitzen den EAEko Sektore Publiko osoaren antolamendu instituzionalaren ikuspegitik, bikoiztasunik izango ez dela bermatuta; (3) aukeratutako pertsonifikazioa egokia den erakundeak bete beharreko funtzioetarako; (4) zer teknika erabiliko dituen Administrazio Orokorrak erakunde berria kontrolatzeko, eta ezta ere (5) haren bideragarritasun ekonomiko-finantzarioa.

Gainera, erakundea sortzeko proposamenaren aurretik ez da egin hasierako jarduketa-planik, Euskal Sektore Publikoari buruzko lege-proiektuaren 44. artikuluko 3. apartatuak eskatu bezala. Honako alderdi hauek jaso behar ditu hasierako jarduketa-planak: manu berean zehazten den aurretiazko azterketa sakona eta zehatza; azterketa ekonomiko-finantzarioa (ogasunaren eta aurrekontuen arloko eskumena duen sailburuaren nahitaezko irizpena izan behar du, eta Gobernu Kontseiluak onetsi behar du), eta lehenengo ekitaldiko aurrekontua. Dagokion lege-proiektua onesten duen erabakiarekin batera hartu beharko litzateke erabaki hori.

organismoaren jarduera zer denbora-esparrutan garatzea aurreikusten den. Era berean, helburuen betetze-mailari lotutako ondorioak ere adierazi beharko dira

b) Erakundea sortzea **komenigarria eta egokia** dela egiaztatzen duen memoria, haren eginkizunak lehendik dagoen beste erakunde batek bete ezin dituela azalduta. Halaber, egiaztatu beharko da erakunde hori sortuta ez dela lehendik dagoen beste organo edo entitate baten jardura bikoiztuko.

c) Proposatutako **forma juridikoa eta antolamenduzkoa**, eta baztertu diren gainerako antolaketa-alternatiben balorazio-azterketa, bai eta autonomia-erkidegoko antolamenduan duten eraginarena ere.

d) Aukeratu den **antolaketa-egituraren** oinarriak. Zuzendaritza-organoak zehaztuko dira, eta funtzionamendurako beharrezkoak diren giza baliabideen aurreikuspena egingo da.

e) **Plan estrategikoa**, helburu zehatzak eta jardura-ildoak zehaztuko dituen.

f) Funtzionatzeko beharrezkoak diren **giza baliabideei** buruzko aurreikuspenak, funtzio publikoaren arloan eskumena duen saileko titularraren txosten lotesleaz lagunduta.

g) Funtzionamendurako beharrezkoak diren **informazio-teknologien** baliabideei buruzko aurreikuspenak.

h) **Azterlan ekonomiko eta finantzarioa**, zeinak egiaztatuko baitu hasieran jardura egiten hasteko eta, gutxienez bost urtez, oro har, organismoa iraunkorra izateko zuzkidura ekonomikoa nahikoa dela, kontuan hartuta gastuen eta inbertsioen finantzaketarako etorkizuneko iturriak nahiz horrek guztiak autonomia erkidegoko aurrekontu orokorretan izango duen eragina.

4.- Aurreko ataletan aipatutako hasierako jarduketa-planak eta ekonomia- eta finantza-azterketak **ogasunaren eta aurrekontuen** arloko eskumena duen saileko titularraren **nahitaezko txostena** izan behar dute, eta hark egokitzen jotzen dituen **txosten gehigarriak** eskatu ahal izango ditu.

5.- **Gobernu Kontseiluari** dagokio, erakundea atxikiko zaion saileko titularrak proposatuta, hasierako **jarduketa-plana onesteko** erabakia hartzea, bai eta erakundearen azterketa ekonomiko-finantzarioa eta lehen ekitaldiko aurrekontua ere. Erakunde publikoa sortzeko arauaren proiektua onesten duen edo gainerako erakundeak sortzeko baimena ematen duen erabakiarekin batera hartu behar da aipatu erabakia.

6.- Jarduketa-plana, urteko planak eta horien aldaketak dagokion erakunde publikoaren web-orrian argitaratuko dira.

Azkenik, aurreproiektuak ez du jasotzen erakundea sortzeko lege-proiektuak izan behar duen gutxieneko edukia (Euskal Sektore Publikoari buruzko lege-proiektuaren 45. artikuluan zehazten da)³.

Gure ustez, EAEko Administrazio Orokorraren jarduketarekin bat etortzeko, eta seguruenik Eusko Legebiltzarrak Euskal Sektore Publikoari buruzko Legea aurki onetsiko duenez, aipatu ditugun hutsuneak zuzendu egin beharko lirateke aurreproiektua Gobernu Kontseiluari aurkeztu baino lehen.

Jarraian, 7.2 artikulua agentziari esleitzen dizkion eginkizunak aztertuko ditugu labur-labur:

- a) Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren barruan, jarduera fisikoa sustatzeko politikak planifikatzea eta koordinatzea.*
- b) Euskadin jarduera fisikoa sustatzeko plan publikoak koordinatzea eta bultzatzea, tokiko autonomia erabat errespetatuz.*
- c) Euskadiko jarduera fisikoaren eta kirolaren egoeraren eta bilakaeraren ikuspegi orokor eta etengabe bat ematea.*
- d) Euskal Autonomia Erkidegoko kirol-zerbitzu publikoak erabiltzeko kirol-txartel bakarraren sorkuntza eta abiaraztea bultzatzea.*
- e) Joerak aurreikustea eta herritarren jarduera fisikoaren eta kirolaren jardun handiagoa eta hobe sustatzera bideratutako neurriak proposatzea.*
- f) Jarduera fisikoa sustatzeko Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren bidez horretara bideratutako baliabide ekonomiko eta materialak kudeatzea.*

³ 1.- Legez eratuko dira organismo autonomoak eta zuzenbide pribatuko erakunde publikoak.
 2.- Erakundeak eratzeko prozedura orokorrari buruz ezarritakoa bete ondoren, dagokion erakundea eratzeko lege-proiektuak honako eduki hau izango du, gutxienez:
 a) Zelan pertsonifikatzen den erakundea, zein izaera juridiko duen, eta Administrazio Orokorreko zein saili atxikitzen zaion.
 b) Zein den erakundearen izena eta egoitza.
 c) Zer helburu edo interes orokorrerako sortzen den, eta zer funtzio gomendatzen zaizkion; beren-beregi adierazi beharko da zer administrazio-ahal bete ahal dituen.
 d) Zer gobernu-organo dituen, eta zeintzuei gomendatzen zaizkien kontsulta-funtzioak, halako funtziorik gomendatzen bazaie; organoak kide bakarrekoak ala anitzekoak diren; zer prozeduraren bidez izendatzen diren kideak, eta nola banatzen diren funtzioak kideen artean.
 e) Zertan oinarritzen den erakundearen egitura organiko eta administratiboa, eta zeintzuk diren zuzendaritzako postuak. Zehaztu egin beharko da zer funtzio gomendatzen zaien postu horiei, eta zein balore juridiko daukaten haien egintza eta ebazpenek; era berean, adierazi beharko da egintza eta ebazpen horietatik zeintzuk agortzen duten administrazio-bidea.
 f) Zer araubide juridiko zehatz aplikatu behar zaien, hala badagokie, ekonomia-finantzen araubideko gaiei eta giza baliabideei.
 g) Zer langile eta ondare atxikitzen zaion erakundeari, eta zer baliabide ekonomiko dituen funtzioak betetzeko.
 h) Zein den erakundea azkendu eta kitatzeko prozedura.

g) Jasotzen dituen funts publiko eta pribatuak beste zernahi transferentzia kudeatzea. Euskadiko beste administrazio publiko batek Eusko Jaurlaritzarekin jardura fisikoa sustatzeko baliabide ekonomiko batzuen transferentzia erregularra adosten badu, ekarpen hori agentziak kudeatuko du, hitzarmen bidez adierazten diren baldintzen arabera.

h) Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailak eta erakundeak jardura fisikoa sustatzeko politikaren plangintzan aholkatzea.

i) Jardura fisikoa sustatzeko politika publikoaren, politika horrek duen eraginaren eta politika horri lotutako ekintzen eta tresnen urteko ebaluazioak egitea.

j) Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailek jardura fisikoa sustatzeko egindako jardueren koherentzia bermatzea, lege honetan adierazitako printzipioen eta helburuen esparruan.

k) Autonomia Erkidegoko biztanleriaren jardura fisikoaren maila eta jardura fisikoaren garapena baldintzatzen duten elementuen bilakaera ebaluatzea.

l) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra ordezkatzea jardura fisikoaren sustapenari lotutako kanpoko proiektuetan.

m) Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko beste sail batzuei eta Euskadiko beste administrazio publiko batzuei babesa eta laguntza eskaintzea jardura fisikoaren sustapenari lotutako ekimenak garatzeko.

n) Gizarte-eragileekiko elkarriketari eustea.

o) Jardura fisikoaren esparruan sentsibilizatzea eta heztera zuzendutako jarduketak bultzatzea eta gauzatzea.

p) Agentziaren helburuak lortzen lagunduko duten ekimen publikoak edo pribatuak babestea eta sustatzea.

q) Indarrean dauden xedapenek egozten dizkioten gainerakoak.

Alde batera utzi behar da d) atalean kirol-txartel bakarrari buruz aurreikusitakoa (sailaren txosten juridikoan dioenez, dagoeneko hasi dira txartel hori sustatzen eta abian jartzen; beraz, segur aski, ezarrita egongo da agentzia abian jartzen denerako); eta f) eta g) letretan aurreikusitako eginkizunak ere ez dira kontuan hartu behar (ez dira, berez, erakundearen helburuak betetzeko funtzioak, baizik eta haren nortasun juridiko independentearen ondorioak). Horiek horrela, esan behar dugu agentziari esleitzen zaizkion hamazazpi eginkizunak honako zeregin hauen errepikapena besterik ez direla, nahiz eta ordena berean ez agertu:

1. EAEko administrazio publikoan jardura fisikoa sustatzeko politikak planifikatzea, koordinatzea eta bultzatzea, eta politika horiek koordinatzea EAEko lurralde-eremuan eskumena duten gainerako administrazioekin,
2. EAEn jardura fisikoa sustatzeko lanean diharduten guztiei laguntza eta lankidetzak eskaintzea, eta

3. aldian-aldian herritarren jarduera fisikoaren maila ebaluatzea, bai eta jarduera fisikoa sustatzeko politika publikoen betetze-maila ere.

Eginkizun horiek bat datoz, funtsean, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen dekretu-proiektuaren 9. artikulua *Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzari esleitzen dizkionekin —laster onetsiko dute— [d) Jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko politika integralak garatzea, erakundeen eta sailen arteko lantaldeak koordinatuz; e) Jarduera fisikoaren eta kirolaren egoerari buruzko informazioa eta dokumentazioa biltzea eta zabaltzea, bai eta horren gainean egoki iritzitako ikerketak eta azterlanak bultzatzea eta egitea ere]*.

Esan dugun bezala, espedienteak ez ditu agerian jarri Administrazio Orokorrak jarduera fisikoa efikaziaz eta efizientziaz sustatzeko orain arte egindako lanean izandako arazoak eta gabeziak; alegia, ez ditu eman erakunde berri bat sortzeko arrazoiak izan daitezkeenak.

Bestalde, esan behar dugu aurreproiektuko 7.2 artikulua idazkera ez dela zehatza; izan ere, a) letrak dio jarduera fisikoa sustatzeko politikak planifikatu eta koordinatu behar direla Euskal Autonomia Erkidegoko *Administrazio Orokorraren barruan*, baina agentzia zuzenbide pribatuko erakunde publikoa denez, ez litzateke Administrazio Orokorraren parte izango. c), e) eta j) letretan egiten diren aipamenak ere ez dira ez zehatzak ez argiak, eginkizun hauei dagokienez: *ikuspegi osoa ematea, joerak aurreikustea, jarduera fisikoa sustatzeko egindako jardueren koherentzia bermatzea*.

Nabarmentzekoa da, halaber, erakundea sortuta ere ez litzatekeela lortuko dirulaguntza-programen bidezko jarduera fisikoaren sustapena instantzia bakar batean kontzentratzea EAEko administrazio publikoaren esparruan. Izan ere, Osasun Sailak aurkeztutako alegazioei erantzunez, jarduera fisikoa sustatzera bideratutako EAEko Aurrekontu Orokorretako baliabide ekonomiko guztiak kudeatzeko hasierako aurreikuspena aldatu egin da, berariaz agentziara bideratutako baliabide ekonomikoak kudeatu ditzan erakunde horrek. Beraz, sakabanatuta jarraituko dute EAEko Administrazioan jarduera fisikoa sustatzeko sortutako politikek, nahiz eta zuzenbide pribatuko erakunde publiko bat sortu kudeaketa hobetzeko.

Azkenik, kontuan hartu behar da aurreproiektuaren III. titulu berriak hainbat arlotako eskumenak dituzten administrazioen esku (gizarte-zerbitzuak, hezkuntza, osasuna, hirigintza...) uzten dituela jarduera fisikoa sustatzeko neurriak. Horregatik, gure ustez, koordinazio eta lankidetzaren egokia ahalbidetu behar da tartean diren instantzia guztien artean, bikoiztasunak eta desadostasunak saihesteko; eta ordenamenduak baditu nahikoa tresna hori lortzeko, erakunde berri bat sortu beharrik gabe.

Hori guztia kontuan izanda, berriz diogu ez dela nahikoa arrazoitu EAEko Administrazio Institutuzionalean erakunde berri bat sortzeko beharra; eta gure iritziz, EAEko administrazio publikoak eraginkortasun eta efizientzia handiagoz balia dezan jarduera fisikoa sustatzeko duen eskumena, egokiagoa izan liteke kide anitzeko organo bat sortzea EAEko Administrazio Orokorraren baitan. Tartean diren sail guztiek hartuko lukete parte organo horretan, eta jarduera fisikoa sustatzeko politikan beharrezkoa den koordinazioa eta koherentzia lortzen saiatuko litzateke; gainerako administrazio eskudunekiko koordinazioa ere bideratuko luke, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Euskal Kontseiluaren barruan sortuko den *erakunde arteko koordinazio-mahaiaren* bitartez.

Jarraian, dirulaguntzekin lotutako gai bat aipatu behar dugu. Aurreproiektuko 7. artikulua 3. apartatuak dioenez, agentziak, bere eginkizunak betetzeko, aukera izango du, besteak beste, *“jarduera fisikoa sustatzeko programak, proiektuak eta gainerako ekimenak egiteko laguntzen eta dirulaguntzen deialdiak kudeatzeko”*. Idazkera horren arabera, agentziak Administrazio Orokorraren erakunde laguntzaile gisa soilik jardun ahal izango luke dirulaguntzen prozedurak izapidetzean; hain zuzen ere, *“deialdiak kudeatzeak”* ez dakar berekin eskumenik dirulaguntza-prozedura arautzen duten oinarriak onesteko; ez eta laguntzak emateko ere, prozedura amaitzeko dagokion erabakiaren bidez. Lortu nahi dena baldin bada agentziak eskumena izatea dirulaguntzen deialdiarekin batera oinarri arautzaileak onesteko eta ebazpena emateko, erakundea sortzeko arauan berariaz jaso beharko litzateke hori.

Eta hori guztia kontuan hartuta agentziak urtero onartu beharko lituzkeela oinarri arautzaileak eta deialdia; izan ere, kasu honetan administrazio-egintza baten aurrean gaude, ez xedapen orokor baten aurrean. Agentziaren sustapen-politika ezin izango litzateke antolatu indarraldi mugagabeko arau batean ezarritako oinarri arautzaile batzuen bidez, erakundeak ez baitu horretarako erregelamendu-ahalik. Horrek eragotzi egingo luke, argi eta garbi, jarduera fisikoa sustatzeko politika epe luzerako plangintza baten bidez gauzatzea. Plangintza horrek, hainbat urtetarako dirulaguntza-estrategia batetik abiatuta, indarraldi mugagabeko xedapen orokor bat izango luke, zeinak egonkortasun handiagoz arautuko bailuke arlo horretako dirulaguntzen politika, eta, ondorioz, deialdiak argitaratuko lirateke urtero. Deialdi horietan, ekitaldirako zuzkidura ekonomikoa baino ez litzateke zehaztu beharko, eskabideak aurkezteko epekin batera. Beraz, dirulaguntzen prozedura sendoagoa eta azkarragoa izango litzateke.

Manu berak [7.3.a) artikulua] honako aurreikuspen hau jasotzen du: *“Agentziaren dirulaguntza arloko jarduera, bere izaera juridikoarekin bateragarri den gai guztietan, dirulaguntzak arautzen dituen araudian xedaturikoaren mende egongo da. Arau horiek Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginean jasotzen dira”*. Horri dagokionez, gogoratu behar da XII. Legegintzaldiko (2020-2024) legegintza-egutegian – Gobernu Kontseiluaren 2020ko azaroaren 10eko

Erabaki bidez onetsia – proiektu gisa agertzen dela 2021eko bigarren seihilekoan onartu beharreko EAEko dirulaguntzen araubidea arautzen duen Legea. Lege horrek, ziur aski, EONALTBn ezarritako dirulaguntzen araubidea indargabetuko du, eta, beraz, erreferentzia hori berehala zaharkituko da. Gainera, gogorarazi behar da EAEko esparruan aplikatzekoak direla, halaber, Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrean eta hura garatzeko erregelamenduan jasotako Estatuko oinarrizko arauak; beraz, ez da nahikoa EAEko dirulaguntzen araudia aipatzea.

Azkenik, erakundeak dirulaguntzei buruzko araudia bete behar duela zehazteaz gain, komeniko litzateke proiektatutako erakundeari aplikatu beharreko araubide juridikoaren erreferentzia osatzea, eta xedapen orokor bat gehitzea, adierazteko erakundeak aurrekontu-araubidearen, ondarearen eta kontratazioaren arloan indarrean dagoen zuzenbide publikoaren mende dagoela, bai eta beste xedapen espezifiko bat ere, kontrol- eta kontabilitate-araubideari buruzkoa, honako hau edo antzekoa:

"Euskal Herriko Ogasun Orokorraren gai propio guztietan, Autonomia Erkidegoan aplika daitekeen araudiak zuzenbide pribatuko erakunde publikoei dagokienez xedatutakoari lotuko zaio. Kontrol ekonomikoa, berriz, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak gauzatuko du, ekonomia-finantzen eta kudeaketaren kontrol iraunkorreko modalitateari jarraituz⁴, EAEko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen testu bateginean ezarritakoarekin bat etorriz (urriaren 19ko 2/2017 Legegintzako Dekretuak onetsi zuen testu hori)."

4.- Eragina ekonomian eta aurrekontuetan

Espedientea osatzen duen dokumentazioaren azterketatik ondorioztatu dugu araudi-proiektu honek eragin berezia izango duela Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioaren ekonomian eta aurrekontuetan, bai gastuetan bai diru-sarreretan.

1).- Gastuei dagokienez

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 10.3 artikulua hau ezartzen du: *"Era berean, espedienteak memoria ekonomiko bat edukiko du, eta, hor, egitekoa den arauaren kostuaren zenbatespena azalduko da: gastu eta diru-sarrerak zenbatuta agertuko dira, eta, orobat, herri-administrazioaren aurrekontuetan izango duen eragina, finantzaketa-iturri eta -erak nahiz Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren ekonomia- eta araudi-*

⁴ Estipulazio horri arau erako ekonomia-kontrol modalitateko kontrola gehitu beharko litzaioke, baldin eta erakundeari diru-laguntzen arloan esleitzen zaizkion zereginek diru-laguntzen oinarriak onartzea eta deialdiak kudeatzea barne hartuko balute [EAEko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen —urriaren 19ko 2/2017 Legegintzako Dekretuak onetsia— testu bateginaren 25.3 artikulua: "Diru-laguntzak emateko egitarauen deialdi eta garapenerako arauak ezarriko zaie, dena den, kontrol hori"].

kontrolaren gaineko arauak zehaztutako beste alderdi batzuk. Egitekoa den arau horren aplikazioak beste herri-administrazio batzuei, banakoei eta oro har ekonomiari ekarriko dion kostua ere neurtuko du”.

Aldiz, urriaren 31ko 464/1995 Dekretuaren (Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoaren barne-kontrol ekonomikoa eta kontabilitatea garatzen ditu) 43. artikulua honako hau dio:

“1.- Arauen Kontrol Ekonomikoa ekainaren 30eko 14/1994 Legearen 26. artikulua 2. paragrafoaren harira badoa, artikulua horren 1. paragrafotik aplikatzekoak izan daitezkeen atalez gain, proposatutako antolaketaren arrazionaltasuna landu beharko du eta horrek zerbitzuen egungo kostuan, errendimenduan eta eraginkortasunean duen eraginari eta etorkizuneko aurreikuspenari buruz iritzia eman.

2.- Horretarako, aurreko artikulua eskatuta aurkeztu behar den dokumentazioaz aparte, honakoa ere igorri behar da:

a) Organo bat sortzeko edo, hala badagokio, aldarazteko eta berrantolatze beharraren edo egokitasunaren justifikazioa, gauzatuko dituen edo bere burua txertatzeko ekonomia eta aurrekontuetako programak eta betetze aldera.

b) Erabiliko diren giza baliabideen aurreikuspena, ordainsari eta kostuak zehaztuta, eta, halaber, atxikitako baliabide materialak zehaztuta, ondo bereiziz zein diren gastu arrunt eta zein kapital-gastu.

c) Bere funtzionamenduaren eta zerbitzuen etekin edo balioaren azterketa ekonomikoa, eta, hala badagokio, baita lau urteko Plan Ekonomikoa ere.

3.- Baldin eta xedapenaren helburua bada baltzu, elkarte edo bestelako erakunde sortzea edo horietan parte hartzea, erakunde horien izaera juridikoa edozein dela ere, gainera Justifikazio Memoria bat ere igorri behar da, erakunde berri horren jardueraren inguru ekonomikoari buruzko informazio orokorra azalduko duena eta Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorrak eta instituzionalak erakunde horretan parte hartzea justifikatzeko arrazoi ekonomikoak eta enpresakoak, sozio-kulturalak edo politikako estrategiakoak zein diren azalduko duena. Erakunde hau sortuta edo bertan parte hartuta lortu nahi diren helburuak definitu behar dira, epe ertainera begira kuantifikatuta, eta helburuak zenbateraino bete diren neurtzeko adierazleak jarri, bai objektiboak bai subjektiboak. Horrez gain, erakunde berriaren xede sozialari buruzko informazioa ere aurkeztu behar da, Eusko Jaurlaritzak izango duen parte-hartzearen portzentajea, aurreikusten diren ekarpen eta guzti; gainerako parte-hartzaileen eta beren parte-hartzearen portzentajearen zehaztapenak; inbertsio-proiektuak; proiektuaren errentagarritasunaren azterketa, ekonomikoa nahiz soziala eta, egokitzen bada, kapitalaren eta ustiapenaren aurrekontuak, aurreikusten diren egoera

finantzarioak, aurreikusitako zorpetzea eta proposamenaren zentzuzko ezagutza edukitzen lagunduko duten beste elementu eta agiri guztiak”.

Espedientean “Jarduera fisikoaren eta kirolaren lege-aurreproiektuari buruzko memoria ekonomikoa” izeneko dokumentu bat dago; bada, agiri horrek, bere izena gorabehera, ez ditu betetzen aipatutako arauetan dokumentu horri buruz ezarritako manuak.

Kultura Fisikoaren eta Kirolaren Euskal Agentzia ZPEP sortzeari dagokionez, hona hemen zer dioten memoria ekonomikoak:

Jarduera fisikoa sustatzeko Euskal Agentzia:

Jarduera Fisikoa Sustatzeko Euskal Agentzia abian jartzeko eta proposatutako/ezarritako helburuak gauzatzeko langile-zuzkidura bat beharko da, zeina Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzaren egungo egituratik egokituko baita eta honako osaera izango baitu:

- *Jarduera fisikoaren eta kirolaren zientzietako lizentziadun 4 teknikari.*
- *Profil juridiko eta administratiboa duen teknikari bat.*

Etorkizuneko agentziaren langile-egitura Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzari esleitutako egungo langile-zuzkiduratik sortuko da. Langile gehiago behar izanez gero, lanpostuak amortizatu edo sortuko dira, baina inola ere ez da handituko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzaren I. kapituluan egun esleituta dagoen partida.

Etorkizuneko agentziaren aurrekontua hornitzeko, Eusko Jaurlaritzako sail batzuen ekarpenak erabiliko dira (Kultura, Osasuna, Hezkuntza ...), edo beste administrazio batzuetakoak (Foru Aldundiak); beraz, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzaren I. kapitulua murriztu liteke”.

Ezin gara ados egon memoria ekonomikoan ageri den adierazpen horrekin; izan ere, aurreproiektuan jasotakoaren arabera, agentzia sortzen denean kide bakarreko bi gobernu-organo eratuko dira gutxienez (presidentea eta zuzendaria). Gainera, erakundeari gutxienerako antolamendu-egitura bat eman beharko zaio bere jardunerako; ezinezkoa iruditzen zaigu agentziaren administrazio-zeregin guztiak *profil juridikoa eta administratiboa duen teknikari* bakar batek egin ahal izatea, memoria ekonomikoak dioten bezala. Gure ustez, eta gutxienez, behar adina langile izan beharko ditu agentziak administrazioan eta zerbitzuetan, zeregin hauetaz arduratzeko: langileen kudeaketa, ekonomiaren eta aurrekontuaren kudeaketa, mantentze-lanak, kontratazioak, kudeaketa informatikoa eta abar. Hain zuzen ere, agentzia ZPEP gisa eratuko denez eta Administrazio Orokorretik independentea izango denez, zuzenbide pribatuko erakunde publiko gisa bete behar dituen administrazio- eta kudeaketa-eginkizunak betetzeko adinako egitura izan behar du.

Eta horrek, ezinbestean, langile-kostuak nabarmen handitzea dakar; izan ere, legeak sortutako kide bakarreko organoetan egongo diren goi-kargudunetz gain, administrazio- eta kudeaketa-zereginetako giza baliabideak bikoiztu egingo dira, gaur egun Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzaren ohiko zereginetan diharduten langileekin alderatuta. Zeregin horiek guztiak sail bereko zuzendaritza eta administrazio-unitate guztientzako artatzen dituen zerbitzu-zuzendaritzaren bidez gauzatuko da bikoiztasun hori. Argi dago, halaber, erakunde berriak egoitza bat beharko duela bere eginkizunak betetzeko, bai eta baliabide materialak ere.

Aurrekontu Zuzendaritzaren txostenak honako gogoeta hauek jasotzen ditu aurreproiektuak EAEko Aurrekontu Orokorretan izan dezakeen eragin ekonomikoari buruz:

Euskal Autonomia Erkidegoko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Legea indarrean jartzeak 2021eko eta etorkizuneko aurrekontuetan izan lezakeen eragina dela-eta, Kultura eta Hizkuntza Politikako Sailak igorritako agiriak aztertu ostean, Aurrekontu Zuzendaritzak azaldu du hura aplikatzearen kostu ekonomikoak aipatutako sailaren urteroko aurrekontuetako partiden kontura joango direla; partida horiek urtero doituko dira gobernuak onartzen dituen gidalerro ekonomikoetara.

Langile-gastuei dagokienez, memoria ekonomikoak dio 1. kapituluaren kostua ez dela handituko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Lege berria onesten denean, lanpostuak berratzikiko direlako. Deigarria egin zaigu ez dela aurreikusten zuzendaritza-posturik sortzea.

Nolanahi ere, lanpostu berriak sortzeko izapideak egitean, lanpostu horiek sortzeko unean indarrean dagoen araudia bete beharko da.

1. kapituluko zuzkidurak alde batera utzita (Jarduera Fisikoaren Euskal Agentziako langile-gastuak), EAEko Aurrekontuen Proiektuak ez ditu jasotzen Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak zuzenbide pribatuko erakunde publikoa sortu eta mantentzeko berariaz bideratzen dituen kredituak, eta ez ditu aipatzen Hezkuntza eta Osasun Sailek horretara zuzendu ditzaketen balizko kredituak.

Azkenik, komeni da azpimarratzea lege-aurreproiektuari buruzko memoria ekonomikoan ageri diren xedapenek ezin dutela, inola ere, aurrekontu-konpromisorik sortu, urteko Aurrekontu Orokorretan bakarrik jasotzen baitira horiek; beraz, lege hori egikaritu eta garatzeko urteko zuzkidura ekonomikoak EAEko Aurrekontu Orokorren legeek xedatutakoaren arabera izan beharko dira.

Gure aldetik, berriro diogu: erakundea sortzeko proposamenari eutsiz gero, ezinbestekoa litzateke horrek ekarriko lituzkeen kostuen balioespen ekonomiko zehatza egitea, bai eta zerbitzuentzat aurreikusitako errendimenduaren azterketa ere (proiektuaren errentagarritasun ekonomiko eta sozialaren azterketa); gainera,

Administrazio Orokor jardulearen jokabidearekin koherente izateko, komenigarria izango litzateke Administrazio Orokorraz bestelako erakundeak sortzeko jarraitu beharreko prozedura konplexua betetzea. Lehen aipatu dugun Euskal Sektore Publikoari buruzko lege-proiektuan jasota dago prozedura hori.

Egungo memoria ekonomikoan dagoen informaziotik abiatuta ezin dugu iritzirik eman sortu nahi den erakundearen egokitasun ekonomiko eta finantzarioaren inguruan, ez eta zerbitzuen kostu eta errendimenduaren egoeraren, bilakaeraren eta aldaketaren inguruan ere. Bestalde, ezin dugu agentziaren eraginkortasunari buruzko iritzi arrazoiturik eman.

Kontuan hartu behar da, halaber, EAEko 2021erako aurrekontu orokorrak egiteko jarraibide ekonomikoetan jasotako aurrekontu-jarraibideetako bosgarrenak hau dioela berariaz: *“Ezin izango da EAEko sektore publikoko erakunde berririk sortu”*⁵. Beraz, berriro ere diogu Gobernu Kontseiluaren aginduekin bateraezina dela erakunde berri bat sortu nahi izatea arau-proiektu baten bidez.

Kide anitzeko organoetan eta zerbitzuetan egin nahi diren aldaketei dagokienez (funtsean, gaur egungo egituratik eraginkortasun gutxi edo batere ez duten alderdiak kentzea dakarte), baliteke horren ondorioz kostuak murriztea; hala ere, memoria ekonomikoak ez ditu kostu horiek kuantifikatzen, eta, edonola ere, ez dirudi diru asko aurreztuko denik aipatutako aldaketak eginda, organo horien funtzionamenduak eragin txikia izaten baitu gastuen aurrekontuan.

Agentzia sortzeak izango lukeen eragin ekonomikoaz gain, badira EAEko Aurrekontu Orokorretan eragin ekonomikoa izan dezaketen beste arau-xedapen batzuk; hala ere, memoria ekonomikoak ez ditu jasotzen, eta ezta ere kuantifikatzen.

Xedapen horien artean, nabarmentzekoa da, duen garrantziagatik, honako hau: osasun-sistema publikoaren prestazio arrunta izango dela kirola egitearen ondorioz eskatutako osasun-laguntza (horren barruan sartzen da federazio-lizentzien titularrek eska dezaketena, legean bertan araututako lehiaketetan parte hartzeagatik; aurreproiektuaren 70. eta 88. artikulua). Egia da, memoria ekonomikoak dioten bezala, *Osasun Sailak ez duela kontrako iritzirik azaldu bere alegazio-idazkian*; nolanahi ere, asmo horrek nahitaez ekarriko du Euskal Osasun Sistemaren gastua handitzea, eta, beraz, ezinbestekoa da jakitea zenbatekoa izango den gehikuntza hori.

Honako aurreikuspen hauek ere eragin ekonomikoa izango dute, eta, jakina, gastuak handiaraziko dituzte: leihatila bakarra sortzea —67. artikulua—; Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Euskal Eskolak plataforma elektroniko bat sortzea eta

⁵ Gobernu Kontseiluaren 2020ko urriaren 6ko Erabakiaren bidez onartutako jarraibideak, 2021eko aurrekontuak egiteko.

kudeatzea prestakuntza-ekintzei buruzko informazioa emateko —83. artikulua—; kirol-ekipamenduen errolden beste plataforma elektroniko bat sortzea —109. artikulua—; Ikuskapenen Plan Orokorra egitea eta abian jartzea (txosten juridikoaren arabera, ez dago langile espezifikorik hori gauzatzeko; hamargarren xedapen gehigarria).

Beste aurreikuspen batzuek, aldiz, aurrekontu publikoetan aurreztea ekarri beharko lukete; adibidez, federazio-egiturak berrantolatzean federazio-erakunde asko desagertuko lirateke. Gainera, erakunde horien funtzio publikoak murriztuko lirateke, eta horrek ekarri behar luke haien finantzaketa publikoa ere gutxitzea.

Beraz, aipatutako guztiari buruzko azterketa ekonomiko zehatza egin beharko litzateke, araua indarrean jartzeak EAEko Aurrekontu Orokorretan izango duen eragin ekonomikoa zenbatetsita.

2).- Diru-sarrerei dagokienez

Memoria ekonomikoak ez du alderdi horrekin lotutako eraginik aipatzen; baina seguruenik, diru-sarrerak izango dira zehapen-jardueraren ondorioz. Bestalde, jarduketa horiengatik aurreikusten diren diru-sarreraren balioespen ekonomikoa ere egin beharko litzateke.

5.- Beste administrazio publiko batzuetan, partikularrean eta, oro har, ekonomian izango duen eragina

Amaitzeko, esan behar dugu memoria ekonomikoak ez duela betetzen 8/2003 Legearen 10.3 artikuluan ezarritako eskakizuna; izan ere, artikulua horren arabera, memoria ekonomikoak *egitekoa den arau horren aplikazioak beste herri-administrazio batzuei, banakoei eta oro har ekonomiari ekarriko dion kostua ere neurtuko du.*

Aurreproiektuaren testuak karga batzuk ezartzen ditu, eta horietako batzuk foru-aldundiek hartu beharko dituzte beren gain (adibidez, eskola-adineko kirolean 0 urtetik 6 urtera arteko adin-tartea sartzea); aldiz, beste karga batzuk kirol-federazioen eta beste kirol-erakunde batzuen kontura izango dira: gardentasuna (22. artikulua); beren baitan kirol inklusiboaren batzorde bat eratzeke betebeharra (24. artikulua); animaliek parte hartzen duten lehiaketetan albaitari bat egoteko betebeharra (26. artikulua); Gobernantza Onaren Kodea onartzeko betebeharra (43. artikulua); hizkuntza-normalizazioko planak egitea (44. artikulua); sexu-jazarpena prebenitzeko planak egitea (bederatzigarren xedapen gehigarria), eta abar. Bestalde, memoria ekonomikoak ez du balioesten zer kostu ekar dezakeen subjektuek betebeharrak horiek betetzeak.

III. ONDORIOAK.

Erreferentziako espedienteko dokumentazioa aztertu ondoren, bulego honek uste du honako ohar hauek ematea komeni dela, labur-labur eta ondorio gisa:

1.- Berrikusi egin beharko litzateke aurreproiektuko 4 b) artikulua eta 18. artikulua idazkera, edo, bestela, espedientean berariazko argudioak eman beharko lirateke aurreproiektuaren arrazoizkotasunari eta egokitasunari buruz. Gainera, aurreproiektuari bere horretan eustekak EAEko Aurrekontu Orokorretan izango lukeen eragin ekonomikoa aztertu beharko litzateke.

2.- Txostenean dirulaguntzen araubideari buruz egiten diren aurreikuspenak berrikusi beharko lirateke.

3. – Kontrako irizpena ematen diogu Jarduera Fisikoaren Euskal Agentzia zuzenbide pribatuko erakunde publiko gisa sortzeari; eta, hura formalizatzen jarraituko balitz, gomendatzen dugu Euskal Sektore Publikoaren lege-proiektuan ezarritako prozedura bete dadila. Horrekin batera, azterketa ekonomiko-finantzarioa egitea gomendatzen dugu, agentziaren eragin ekonomikoa zehatz-mehatz balioesteko, bai eta haren bideragarritasuna, efikazia eta efizientzia ere, helburuei dagokienez.

4.- Aurreproiektua Gobernu Kontseiluan aurkeztu aurretik hark onets dezan, memoria ekonomiko zehatza egin behar da, aplikatu beharreko araudiak eskatzen duen moduan.